

# EUSKALERRIKO SANTU ETA DOATSUAK

## (Jarraipena)

Lorailak 11

### DOMINGO ITURRATE DOATSUA

Doatsu au, 12 neba-arrebetatik lenengoa, Dima'n jaio zan, 1901 urtean. 13 urte zituala, Algortako'ko Trinitarioen ikastetxera joan zan, erriko eskolan ikasitakoa osotzera, eta andik Kantabria'ko «Bien Aparecida» santutegira lekaide izateko asmo biziz.

Botoak egin ondoren, gazte zintzoa eta buru-argia zalako, bere nagusiak Erroma'ra bialdu eban filosofia eta teologia egiteko, «Gregoriana» deritzan Eleiz-ikastetxe izen andikora.

Bere Meza barria 1925 urtean emon eban, baiña bereala birietako «tuberculosis» gatzak jota, Belmonte'ra (Kuenka'ra) bialdu eban, ea ango aize garbiak bere osasunari on egiten eutson... Urte osoan bere gaisotasuna alai eta pazientzi andiaz eroan ondoren, bertan il zen, bere santutasunez etxea bete ondoren. Orain bere gorpuzkiak Algorta'ko Trinitarioen eleizan gordetzen dira.

Bizkaitar doatsu gazte au, txikitandik maitagarria, garbia eta bere ingurukoen eredu izan zan. Bere santutasuna onetan dago: eguneroko lan eta bearrak, Jaungoikoaren maitasunez, alik eta ondean egin eta betetzean.

Lorailak 13

### MIKEL GARIKOITZ SANTUA

(Garikoitz eta Garaikoetxea abizen bardiñak dira).

Euskal santu au Benafarroako Ibarra erritxoam jaio zan, 1797 urtean, Baiona'ko eleiz-barrutian.

Bere gurasoak baserritar beartsuak ziralako, Mikel'ek bere eskolako lanak eta solokoak txandaka egin bear izan ebazan. Gazte gogorra osasunez, argia buruz, eta iraupen andiko zalako, soloan lan egitea, mendian ardiak zaintzea eta eskolan ikastea, alkartzen ondo ikasi eban.

Meza barria emon ondoren Kanbo'ko parrokira bialdu eban, ango Erretore edo Txaunburu zarraren babespean arimak zaintzen ikastera.

Gero Betharram'en seminarioko irakasle eta gazteen zuzendari izan zan.

Bere eskuartetik ainbeste abadegai igaro ziran, geroago bere lande izango ziranak. Betharram'en sortu eban «Jesusen Biotzaren abadeak» izaneko alkarte. Eleizgizonen kongregaziño au laster zabaldu zan Europa'n eta Ameriketean, batez be Arjentina'n, ango euskaldunai laguntza emoteko, bai ariman, baita kulturaren eta gizon-izate ikastean.

Mikel Garikoitz Betharram'eko santutegian il zan 1863 urteko loreillaren 14.

Loirailak 16

### ANDRES HUMBERTO FOURNET SANTUA

Santu au ez da jaiotzez euskalduna. Frantzia'ko Maillé errian jaio zan 1752 urtean.

Frantzia'ko Iraultzak bere erritik bota, eta Naparroa'ko «Los Arkos» errira etorri zan, eta emen bost urtetan eliz-lanetan jardun eban, santu izen andiz.

1797 urtean Frantzia'ra itzuli aal izan eban, eta Isabel Bichier andra santuaz batera «Gurutzeko Alabak» izeneko kongregaziñoa sortu eban, gazteak eta gaisoak zaintzeko lana bere gain artuz.

15 urte emon ebazan Kongregaziño oneri laguntzen, eta 1834 urtean il zan.

Lorailak 25

### BIZENTA MARIA LOPEZ BIKUÑA SANTUA

Emakume santu au Naparroa'ko Kaskante errian jaio zan 1847 urtean.

Bere bizitzako ardurarik andiena neska gazteai laguntza emotea izan zan. Orretarako «Maria Sortze Garbiaren» kongregaziñoa sortu eban.

Bere alabak mundu guztira laster zabaldu ziran, ikastetxeak, lan-eskolak eta beste edozelango laguntza neska gazteai eskeintzeko asmoz.

Madril'en il zan, eta Paulo Seigaren Aita Santuak Santuen artea jaso eban 1975 urtean. Euskalerriko santu guztien artean, au dogu santuen maillara igondako emakume bakarra.

Jarraituko dau,  
GOIKOETXEA'tar Iñaki